

Trebatzeko ikasketak New York- en

Unibertsitateko zenbait ikasle
eta irakasle ohiak, New York-en
burutzen dituzten zeregin
profesionalak azaldu zituzten

2005 Abu 4

Bi astetan zehar, aukera izan dute
publizitateko BBDO bezalako zenbait
agentzia bisitatzeko; agentzia horrek,
besteak beste, Pepsi, General Electric
edo hiriaren sustapen turistikoa
bezalako kontuak ditu; baita,

aldizkariak argitaratzen dituzten enpresak, Condé-Nast adibidez, 23 aldizkari argitaratzen dituena, besteak beste Vogue eta Traveler; MNN: Manhattan Neighborhood Network, Manhattan-eko bertako telebista, biztanleen artean ospe handikoa, eta baita bertan bizi diren latinoentzat espresuki pentsatu diren zenbait komunikabide ere.

Unibertsitateko zenbait irakaslek, gaur egun New York-en lanean arituak, beren burua eskaini dute, burutzen dituzten zeregin profesionalak azaltzeko. IME (Institute of Media and Entertainment), NBE-ren Inmigrazio Saileko komunikazioaren kudeatzea edo Winglatino publizitateko agentzian egindako lana izan dira jardunaldi horietako edukien arteko zenbait.

Jardunaldi hauek oso onuragarriak izan dira Kazetaritza, Ikus-

Entzunezko Komunikazioa eta
Publizitateko ikasleontzat. Izan ere,
Noemí González-Bilbao, NBE-n lan
egiten duen Nafarroako
Unibertsitateko ikasle ohiaren
jardunaldiak ikuspegi zabalak
aurkeztu baitzizkien euroi praktikak,
izango zuten lanbideen atear irekiko
dizkienak alegia, ondo aukeratzeko.

Cristina Zurutuzak, komunikabide
eta terrorismoari buruzko bere
tesian lanean diharduenak, 11-S
atentatuarekin zerikusian dagoen
informazioa nola egin zenari
buruzko zenbait alderdi azaldu
zizkien. Ikasleek aukera izan zuten,
baita ere, Ground Zero, Dorre Bikiak
kokatzen zireneko lekua alegia,
bisitatu egiteko.

Hango egonaldia osatu egin dute
Metropolitan Museum, MOMA edo
New York Hiriko Museora bisitaldi
kulturalak eginaz. Baita, Empire
State bisitatu, Chinatown-etik

paseatu edo Little Italy-ko
edertasuna begietsi egin zuten.
Boston-en Harvar-eko
Unibertsitatearen egoitza bisitatu
zuten eta, egonaldia amaitzeko,
Niagara-ko ur-turrustak ikustera
joan ziren.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/trebatzeko-ikasketak-new-
york-en/](https://opusdei.org/eu-es/article/trebatzeko-ikasketak-new-york-en/) (2026 Urt 13)